

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

2010. urtea oso beroa izan da munduan

EUROPAN UDAZKENAREN AMAIERA ohi baino hotzagoa izaten ari bada ere, Meteorologiaren Munduko Erakundearen (OMM) arabera, aurtengo 1850. urtetik izandako hiru urterik beroenen artean izango da.

Abenduaren 2an argitara emandako txostenean aurtengo urtarrila eta urria bitartean munduko batez besteko tenperatura 1961-1990 epeko batez bestekoarekin alderatuta $0,55^{\circ}\text{C}$ handiagoa izan dela adierazten da; urtea ixteko datu batzuk falta badira ere, aurtengoak txiki utzi ditu 1998 edo 2005 urteetako tenperaturak.

2001-2010 epean batez besteko tenperatura 1961-1990 epean baino $0,46^{\circ}\text{C}$ handiagoa izan da eta 2000-2009 hamarkadako baino $0,03^{\circ}\text{C}$ handiagoa. OMMaren arabera, hau da historian ezagutzen den hamarkada batetik besterako hazkunderik handiena.

Bestalde, esan bezala, Europan azken hogeitaz urteotan izandako urterik hotzena izan bada 2010ekoa, Kanan, Groenlandian, Afrikan eta Asian inoizko tenperaturarik gariak neurtu dira.



SASHAW-CC BY SA

Muturreko tenperaturak jasan ditzakeen materiala

SCIENCE ALDIZKARIAN argitara emandako artikulu baten arabera, -196°C eta 1000°C artean bere ezaugarriak eusten dien material biskoelastikoa topatu du ikerketa talde japoniar batek.

CNT izena duen material berri honek eztiaren itxurako likidoaren portaera du, baina hasierako itxura berreskuratzen du eragiten dion indarra desagertzen denean. Gainera, erabilera-degastearekiko ere erresistentzia ona du.

Orain arte material mota horiek ez ziren muturreko tenperaturak jasateko gai izaten, baina Ming Xu ikerlariaren arabera egituraren karbonozko nano-tutuek duten kokapenean datza propietateen aldaketa. Erabilpenak oso ugariak izan daitezke.

Landare batzuek katapultatu egiten dituzte haziak

Gehienetan landareak izaki estatikotzat hartzen ditugu. Batzuen kasuan hori egia baldin bada ere, beste batzuek oso mugimendu azkarrak egiten dituzte, apenas bost milisekundoko iraunen dutenak, eta gure begiek ez dituzte ikusi ere egiten.

<http://ttiki.com/20858> (Gaztelaniaz)

Elektrizitatea sortzen duten leihoak

AEBetako Brookhaven eta Los Alamos-eko Laborategi Nazionalak ikerlariak argia hartu eta elektrizitate bilaka dezakeen zuntz gardena garatu dute. Zuntz hori gure etxeko leihoetan jar daiteke eta behar dugun elektrizitatearen zati bat sor dezakegu hortik.

<http://ttiki.com/20860> (Gaztelaniaz)

Gorputzez osatutako Internet sareak?

Uhin artean bizi garelako esateak ez gaitu jada harritzen. Gehiago kezkatu gaitzake gu geu bihurtzeak Interneteko sare baten euskarri, gure gorputzetan sentsoreak kokatuz. Bel-fasteko Queen's Unibersitatean horretan ari dira... Ez da zientzia-fikzioa!

<http://ttiki.com/20861> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16